Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko ekainaren 8a, asteazkena — 108 — Miércoles, a 8 de junio de 2022

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ESKORIATZAKO UDALA

*Aisialdian hizkuntza errefortzua jasotzeko diru laguntzen laburpena. BDNS (Identif.): 630269.*

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/630269).

*Lehenengoa. Onuradunak.*

Laguntza hauek Eskoriatzan erroldatutako pertsona fisikoek eskuratu ahal izango dituzte, baldin eta beraien tutoretzapean edo guraso-ahalpean 3 eta 12 urte arteko adingabeak badituzte.

Adingabekoari dagokionez, ondorengo baldintzak bete beharko ditu hizkuntza errefortzua jaso ahal izateko:

— Eskoriatzan erroldatuta egotea.

— Eskoriatzako ikastetxeren batean matrikulatuta egotea haur hezkuntzan edo lehen hezkuntzan.

— Adinari dagokion euskara nahikotasunik ez izatea. Onuradunak identifikatzeko ardura ikastetxeek izango dute, eta Udalak ezarritako derrigorrezko baldintzez gain, beraienak ezartzeko eskumena izango dute. Kasu horretan, baldintzek Udalaren oniritzia izan beharko dute.

— Aurretik hizkuntza errefortzu zerbitzua jaso badu, aprobetxamendu maila nahikoa eduki izana.

*Bigarrena. Helburua.*

Oinarri hauen helburua da adinari dagokion euskara nahikotasunik ez duten haurrek hizkuntza errefortzua jasotzeko laguntzak emateko baldintzak arautzea. Laguntzak «jenerotan emandako laguntza» modalitatean emango dira.

*Hirugarrena. Oinarri arautzaileak.*

Deialdiaren testu osoa, oinarriak jaso tzen dituena, osorik argitaratuko da DNBn eta udal webgunean.

*Laugarrena. Zenbatekoa.*

Aurrekontu izendapena 1.000 eurokoa da, eta 2022ko honako aurrekontu-aplikazioaren kargura finantzatuko da: 0600. 481.335.00.01.

*Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea.*

Eskaerak aurkezteko epea diru laguntzetarako deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egun baliodunean hasiko da eta deialdiko urtearen azaroaren 30ean amaituko da.

Eskoriatza, 2022ko maiatzaren 30a.—Alkatea. (3686)

## AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA

*Extracto de la subvención para ayudar a sufragar los gastos de refuerzos lingüísticos en el tiempo libre. BDNS (Identif.): 630269.*

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/630269).

*Primero. Beneficiarios.*

Podrán acceder a estas ayudas las personas físicas empadronadas en Eskoriatza y que tengan bajo su tutela o patria potestad a menores de entre 3 y 12 años.

En cuanto al menor, deberán concurrir las siguientes circunstancias, para acceder al refuerzo lingüístico:

— Estar empadronado en Eskoriatza.

— Estar matriculado en alguno de los centros escolares de Eskoriatza en primaria o prescolar.

— No tener el nivel de suficiencia lingüística correspondiente a la edad. Este extremo será identificado por cada centro escolar, que además de los requisitos exigidos por el ayuntamiento, podrá tener criterios de selección propios, que deberán contar con el visto bueno del ayuntamiento.

— En caso de haber sido en el curso anterior beneficiario del servicio de refuerzo lingüístico haber tenido un nivel de aprovechamiento suficiente.

*Segundo. Objeto.*

Es objeto de estas bases el regular las condiciones de la concesión de ayudas consistentes en la prestación de refuerzos lingüísticos a los niños y las niñas que no tengan un nivel de suficiencia de euskera correspondiente a su edad. Las ayudas se darán mediante la modalidad de «ayuda en especie».

*Tercero. Bases reguladoras.*

El texto íntegro de la convocatoria, comprensiva de las bases, es objeto de publicación íntegra en la BDNS y la web municipal.

*Cuarto. Cuantía.*

La dotación presupuestaria del año 2022 es de 1.000 euros y la partida presupuestaria correspondiente incluida en el presupuesto municipal es la 0600.481.335.00.01.

*Quinto. Plazo de presentación de solicitudes.*

El plazo comenzará a partir del siguiente día hábil al de la publicación de la correspondiente convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y hasta el 30 de noviembre del año de la convocatoria.

Eskoriatza, a 30 de mayo de 2022.—El alcalde. (3686)

EK\CV GAO-I-2022-03686